



Compromiso | Konpromisoa
de Calidad Turística | Kalitate Turistikoarekin

« Denok elkarrekin batera gai honetan lan egitea komenigarria dela usted dut norako turistikoaren osotasuna kalitatezkoa izan dadin »

Goikola Nekazalturismoak duela pare bat urte lortu zuen ziurtagiria. Bere jabea, Carmen Esnaolak, Kalitate Turistikoko Konpromisoa sistemarekin lan egiteak era eraginkorrago batean lan egitea eta negozioan arrakasta haundiagoa izaten laguntzen diola ziurtatzen du.



Zeintzuk izan ziren programa honetan partehartzeko arrazoiak?

Gehien bat ikastea, eskeintzen ditugun zerbitzuak hobetzea eta negozioan arrakasta haundiagoa izatea.

Ze abantaila ekarri dizkizue diplomak?

Lanean askoz txukunagoak izaten ikasi dugu eta, azken finean, askoz eraginkorragoak izaten lagundu gaitu.

Ze hobekuntza izan dira barne funtzionamenduan,

kudeaketan eta azpiegitura gaitan?

Momentuz, eguneroko lanean asko laguntzen diguten detaile txikiak izan dira.

Bezeroaren poztasun mailan ze hobekuntzek eragin dute zuzenean?

Logela bakoitzari bere bainugela gehitzea hobekuntza haundia izan da, izan ere, gaur egun bezeroak geroz eta gehiago eskatzen duen detailea baita.

Nola zuzenduko zinateke zu sektore tusitiko profesionalari Kalitate Turistikoaren Konpromezua bereizgarria ezartzeko? Zer esango zenieke?

Denok elkarrekin batera gai honetan lan egitea komenigarria dela uste dut norako turistikoaren osotasuna kalitatezkoa izan dadin.

Turismo arloko profesionali gomendatuko al zenieke Kalitate Turistikoaren konpromezua diploma ezartzea?

Bai, noski, izan ere hasieran kontuan ez zenituen arloetan hobetzea laguntzen baitu.

Kalitate Turistikoaren Diplomak zure erakundearen posizionamendu lehiakorrago ahalbidetzen duela uste al duzu?

Momentuz sistemaren implantazioan lanean denbora gutxi daramagu eta hortaz, lan guzti hau aurrerantzean isladatua ikusiko dela suposatzen dugu.

Kudeaketa prozesuaren barruan landutako eta ezarritako eskumenen artean zeintzuk azpimarratuko zenituzke?

Orokorrean gai guztiak dira interesgarriak. Guretzako arazoa zera da, hasieran dena kontuan hartzea zaila egiten zaigula, izan ere, baserria bi pertsonen artean eramaten



baitugu, eta turismoaz gain, baserriaren aktibitate propioak ere kontuan izan behar baititugu.

Kalitatearen kultura zure erakundearen bultzatzeko nolako aldaketak sartu dituzu edo sartzeko asmoa duzu?

Kalitate sistemarekin lan egiten jarraituko dugu eta bezeroari dagokionez, nekazalturismoan egongela bat jartzea gustatuko litzaziguke beraien egonaldia erosoagoa izan Darin.

Ze abantaila eskeintzen dizkio zure establezimenduari helmuga bereko bestebatzuekin elkarlanean jarduteak? (jaketxeak, ostatuak, turismo aktiboko enpresak, interpretazio zentruak,

turismo bulegoak...)

Dudarik gabe gure eskeintza osatzean datza, turistiei etxetik, konfidantza osoz, guk eskeintzen ez ditugun zerbitzuak eskeiniaz.

Helmugako establezimenduen artean sinerjiarik garatu ahal duzue? Ze motatako sinerjiak?

Zonaldeko nekazalturismoekin harreman zuzenean gaude haien disonibilitatearen berri jakiteko. Turistari disonibilitate honen berri emateaz gain, bisita, aktibitate, jatetxe edo bertako produktuak non erostearen berri ematen diegu.

Basquetourren eta Jaurlaritzaren aldetik, eskualdeko lehiakortasun teknikoaren bidez jasotako laguntza positiboki baloratuko al zenue? Ze aspektutan?

Bai, eskualdeko lehiakortasun teknikariak asko lagundu digu, gehien bat dokumentazio guztia sortzeko garaian.

Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetour-ek, enpresariei behar dituzten tresnak eta laguntzak ematen dizkiete beraien erakundeak lehiakorra izan daitezen ondorengo programei esker:

- Praktika egokien programa: honen helburua enpresarioen "profesionalizazioa" hobetzea eta helmuga konzientzia sortzea da. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromezua diploma duten 507 establezimendu daude.
- Q Kalitate Turistikoaren programa: bezeroaren itzaropenak betetzea eta gogobetetzea bermatzen dituen programa. Euskadin 268 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q-a ziurtagiria.
- Bikaintasun ereduaren programa: erakundeei kalitatearekin bikaintasun mailaraino igotzea proposatzen dien programa. Eredu honetan partehartzaren diharduten 14 establezimendu daude Euskadin.

EZARRI KALITATE TURISTIKOAREKIN KONPROMISOA BEREIZGARRIA ZURE ESTABLEZIMENDUAN!

94 607 75 86

**www.basquetour.net
info@basquetour.net**